

PRENTSA OHARRA

AURREKARIAK

Ostirala 11: Udal Gobernu Taldeak hondakinen arazoari buruzko eta arazo horren aurrean udalak hartu duen erabakiaren inguruko informazio eta komunikazio bileren amaiera iragarri zuen. Fase horretan ia 800 herritarrek parte hartu zuten antolatutako bileretan. Eremu ezberdinetako 350 herritarrekin batera egindako agerraldian urtarrilaren 14an ekingo zen ezarpenerako parte hartze prozesuan herritarrei parte hartzera animatzen zitzairen.

Astelehena 14tik Astezkena 16a arte: 464 herritarrek parte hartu dute herriko 3 eremutan antolatutako 6 bileretan. Parte hartzaileen artean iritzi ezberdinetako pertsonak askatasun eta naturaltasun osoz adierazi ahal izan dute beraien ikuspuntua. Pa P EZ plataformako kideak ere parte hartu dute bilera hauetan.

Asteazkena 16: ilunkaran jakin genuen *twitter*-en mezu bat zabaltzen ari zela PaP EZ plataforma jasotako mehatxuengatik desegitera zihoala aditzera ematen zuena. PaP EZ plataformakoekin berehala harremanetan jarri eta gezurtatu ziguten mehatxuak jaso izana.

Osteguna 17: herrialdeko 2 egunkarik beraien azaletan PaP plataformak jasandako mehatxuez hitzegiten zuten.

Lourdes Idoiaga, EAJko zinegotziak herriko EAJren *blog*-ean Bilduren inguruneari egozten zion presioa erabili izana.

Arratsaldean PaP EZ plataformak eta Bildu Udal Taldeak prentsa ohar bateratu bat atera zuten. Prentsa ohar horretan plataformak garbi uzten zuen mehatxuak jaso ez izana.

Lourdesekin udal jarduerako ohiko bilerak normaltasunez burutu genituen eta ez zigun momentu batean ere jasotako mehatxuen berri eman.

Ostirala 18: EAJko Bergarako zinegotzi den Aintzane Oiarbidek prentsaurreko batean Oñatiko udalaren aldetik jaso dezaketen errepresalien beldur direla oñatiarrak azaldu zuen.

Bilduk herrian mehatxuak jaso direla ezeztatu izana kritikatu zuen halaber.

Larunbata 19: Noticias Taldeko egunkarien bitartez jakin dugu Lourdesek mehatxuak salatu izana

ADIERAZPENA

Aurreko puntuetan azaldutakoen aurrean Oñatiko Bildu Udal Taldeak ondorengo adierazi nahi du:

- 1. Lehenik eta behin gure elkartasuna adierazi nahi diogu Lourdes Idoiaga andereari. Zoritxarrez, gaur arte ez dugu mehatxu hauen berri izan . Gisa honetako gertakarien aurrean erakutsi izan dugun bezala, gaurkoan ere garbi eta ozen salatu nahi ditugu erabat soberan dauden jokabide hauek. Alde horretatik Udal Gobernuak Idoiaga anderearekin harremanetan jarri ondoren, prest azaltzen da akusazio partikular gisa bertaratzeko.**
- 2. Zoritxarrez badira alde bateko nahiz besteko presioa jasaten ari diren hainbat herritar. Guztiei gure elkartasuna adierazi nahi diegu eta eztabaida baketsu batean parte hartzera animatzen ditugu herritar guztiak, oztopo izan daitezken edozein jarrera arbuiagarri alde batera utzita.**
- 3. Ez zaigu onargarria iruditzen EAJko kide batek berriki gobernatzen dugun udalari egozten dizkionak. Udalak ez du momentu batean ere errepresaliarik erabili herritarren aurka. Alde horretatik errekifikazio bat eskatzen diogu eta bide batez EAJri eztabaida hau ez dezala politizatu exigitzen diogu.**
- 4. Orain arte hondakinen problematikari buruzko eztabaidek, bilerek eta parte-hartze prozesuak izan duen eta izaten ari den normaltasuna azpimarratu nahi dugu. Bigarren fasean geratzen diren 10 bileretan eta hirugarren fasean ere, herritarrei dei egiten diegu orain arte bezala parte hartzen jarraitzeko eta beraien iritzi eta ekarpenak askatasun eta normaltasun osoz adierazteko.**

OÑATIKO BILDU UDAL TALDEA